

# SEINALEAK



## ■ AURKEZPENA

**E**makumeen kontrako bortizkeria diskriminazio era ikaragarria eta giza eskubideen bortxaketa da. Orduan Berdintasun-Ministerioa zeritzonak Estatu guztiko nerabeekin egindako ikerketak ezagutarazi zuen hamar nesketatik batek aitortzen zuela bere bikoteen aldetik tratatu txar-egoera jaso izana, bai zuzeneko eraso fisikoak, bai bere adiskideen kontrola edota larderiak, besteak beste. Datuek erakusten digute ez direla isolatutako kasuak eta arazoa benetakoa dela.

Horregatik eta Euskadi SATSEren oinarritzko printzipioen artean osasun publikoaren defentsarako bere eskura dituen neurriak hartzea dagoenez gero, eta kontuan izanik berdintasun erreala lortzeko neurri bultzada eta sustapenean konpromiso argia onartu duela, alde batetik jende gazteari eta bestetik Erizaintzako eta Fisioterapiako taldeari zuzenduta dagoen komiki hau editatzen dugu. Erreakzionatu ahal izateko bikote erlazioetan zein jokaera diren onargarriak eta zeintzuk ez identifikatzen ikastea oinarritzkoa dela uste dugu, hortik komiki honen titulua: Seinaleak.

Bertan erakusten dira gazteok zuen bikote-harremanetan bizi ditzakezuen egoera hurbilak eta batetik, nerabeenganazko bortizkeria aurrez ikusi eta arrisku-egoeren detektziorako jarraibideak eskaini nahi dizkizue eta beste alde batetik, Erizaintzeria sentzibilizatu eta emakumeen aurkako bortizkeria kasuak aurrez ikusteko eta zuzen tratatzeko hura erreminta gehiago batez dotatzea eta OMEk ondo dioen bezala, “osasuneko sektorearen erantzun egokia laguntza handikoa izan daiteke emakumeen kontrako bortizkeriaren aurkako prebentziorako

eta ondoriozko erantzunerako. Osasun-zerbitzuak egiten dituztenen sentsibilizazioa eta heziketa orban sozial honekin amaitzeko estrategia garrantzitsuenetako bat dira”.

Emakumeen kontrako bortizkeria gizartearen eta osasun publikoaren arazo larria da, sufritzen duten neska eta emakumeen osasun fisiko, buruko eta sexualean sortzen dituen arazoengatik. Horregatik oso garrantzitsua da sarritan itxurako normaltasunean edo “maitasunaren berezko” jelsietan bilduta datorren bortizkeria mota hau antzematea.

Komikian deskribatzen diren egoera antzeko edo berdinetan aurkitzen bazarete edo sufritzen ari den norbait ezagutzen baduzue, fidatzen zareten pertsonaren batekin gaiaz hitz egin ezazue, 016ra dei ezazue edo zuen Erizainari galde iezaiozue, gaizki tratatzen duenik ez delako aldatuko, eta egoera luzatzeak sufrimendu gehiago sortzeko soilik balio izango du.



---

### ■ Argumentua eta gidioia:

Roberto Abad García  
Mikel Bao Aguirre  
Marisol Díaz González  
Ana Estévez Gutiérrez  
Irache Urbiola Pérez

### ■ Marrazkiak:

Mikel Bao Aguirre

LEGEZKO GORDAILUA: BI-1189-2013

---

### ■ Eskerrak

Komiki honen egileok gure esker ona adierazi nahi diegu **Iratxe Aramburu Ortegarri, Nuria Pascual Urbiolari eta Ainara Echevarría Sotori** guri historiaren protagonisten diseinurako bere irudia utzi izana. **ZAINDU**ko komikiaren ebaluaziorako bere ezaguera eskuzabalki eman zuten pertsona guztiei ere bere laguntza eskertzen diegu.

Eta azkenik, **SATSE Euskadiri** proiektu honen, non gure berotasun eta arduraldirik handienak jarri ditugun, edizioa eta zabaltzea eskertzen diegu.

ZURE HIRIKO OSASUN ZENTRO BAT, EDOZEIN EGUNETAN...

EA... EMM...  
MARÍA?

EZ DAGO?

TXITTXAT

Iratxe (12.02): bai,  
Ikerrekin kontsultan  
Nuriki (12.03): gero  
geldituko gea? parke?  
Iratxe (12.03): atsaldean

PLI  
PLI  
PLI

PLI  
PLI  
PLI

TXITTXAT

Ainaranara (12.04): OK  
:)))))) nirebaitiiii  
Ainaranara (12.04):  
geoarte neskak :P  
Iratxe (12.05): zeguay

ASPERTZEN ARI  
NAIZ. PASAIDAZU  
MOBILA.

IRATXE?

TOKATZEN  
ZAIT.

BALE.

MOVIFONE MENU

DOITZEAK  
DEI ZERRENDA  
MEZUAK  
INTERNET

PLI  
PLI



BERAZ METODO  
ANTIKONTZEPTIBOEI BURUZKO  
INFORMAZIOA  
BEHAR DUZU.

BAI,  
HURRENGO  
EGUNEKO  
PILULARI  
BURUZKOA.

HORTAZ  
SEXU-HARREMANAK  
MAIZ MANTENTZEN  
DITUZU.

BAI,  
NIRE  
SENARGAI-  
REKIN.

IRATXE, PILULA EZ DA  
NORMALEAN ERABILI  
BEHAR DEN METODO  
ANTIKONTZEPTIBOA.  
BESTE EGOKIAGO  
BATZUK DAUDE.

EZ DUZUE BESTE  
NEURRIRIK HARTZEN?  
ZURE SENARGAIK EZ  
DU PRESERBATIBORIK  
ERABILTZEN?

ZERA...  
BERAK  
EZ DU  
NAHI.

KONDOIAZ  
EZ DELA  
GAUZA  
BERA DIO.





HARENTZAT,  
KONDOIA EZ  
ERABILTZEIA ELKAR  
MAITE DUGULA  
FROGATZEKO MODU  
BAT DA.



ETA ZER  
DERITZOZU  
ZUK GAI HONETAN  
HARK ERABAKIA  
HARTZEAZ?



NIRE SENARGAIK  
GAUZA HORIEK  
MUTILEK ERABAKITZEN  
DITUZTELA DIO...



EZ, EZ.  
HORI EZ DA  
HORRELA,  
INOLA ERE EZ.



IRATXE, HEMEN BIKOTE ARAZOEZ,  
GENERO-INDARKERIAZ ERE AHOLKUA ESKAIN  
DIEZAZUKEGU ... HITZ EGIN DEZAGUN  
NAHI DUZU?



EZ DUT  
BEHAR.

NIRE SENARGAIK  
ASKO MAITE NAU  
ETA NITAZ  
ARDURATZEN DA.



PLI  
PLI  
PLI

ARRATSALDE  
HORRETAN...

ETA ZER  
GERTATU  
ZEN  
GERO?

BADA... MUGIKORRA  
NIRI ITZULTZEN ORDU  
ERDIA EMAN ZUELA.

JO, NESKA.  
SINESTEZINA DA.

ZUK EGIOZU  
KASO BERARI,  
ZURETZAT  
ONENA ZER  
DEN BADAKI  
ETA.

EZTA  
PENTSATU  
ERE!

BATEK BERAK  
ERABAKITZEN  
DITU GAUZA  
HORIEK...

**TIRIRI  
TIRIRI**

BADAKIT...

**TIRIRI  
TIRIRI**

BERA DA.

**TIRIRI  
TIRIRI**

IKUSTEN NURIA, IKUSTEN DUZU NOLA  
ASKO MAITE DUEN? UNEORO  
DEITZEN DIO ... HORI  
MAITASUNA  
DA.

ANARA, ISILDU  
ZAITEZ, EZEIDAZU  
HITZ EGINARAZI...!  
GRRR-A!

**PLI**

**TIRIRI  
TIRIRI**

KAIXO...

EA BIZKORRAGO  
ERANTZUTEN DUZUN!  
EZ ZAIT GUSTATZEN  
ZAIN IZAN  
NAZAZUN!

BARKATU.

ZER EGITEN ARI  
ZARA? NOREKIN  
ZAUDE?

ANARA ETA  
NURIAREKIN.

JO, BETI  
BEZALA.

EZ AHAZTU BIHAR  
KEPAREN ETXEAN  
FESTARA GOAZENIK, EH?

BAI, BALE.

ZORTZIETAN  
JASOKO  
ZAITUT.

MAITE **PLI**  
ZAITUT.

BIHAR BAZATOZTE  
JAIRA? USTE NUEN  
IRATXEK EZ ZUELA  
GOGORIK...

IRATXERI BAKARRIK  
DITUEN BI LAGUN  
PLASTA HORIEKIN  
EGOTEA ATSEGIN  
ZAIO.

NESKAK MOTZ LOTU  
BEHAR DIRA BETI...  
ZUK EGIDAZU KASU  
NIRI, KIDE...

POTOA JATEN  
DIOTE, ETA GERO  
HARRO JARTZEN ZAIT  
ETA GUZTJETAN KONTRA  
EGITEN DIT.

TXO,  
NOLA PASATZEN  
HAIZEN...



TXITTXAT

Iratxe: festafestafesta  
!!!!!!!  
Nuriki: minigona kañera  
hori ikusi nahi duguuuuu  
Ainaranara: :)))))))))

BAZEN  
GARAIA...

KAIXO.

?!?

BAINA  
ZER ARRAIO  
JANTZI  
DUZU?

EZ ZAIZU  
GUSTATZEN?

URDANGA  
GALANTA  
DIRUDIZU.

ZOAZ  
ALDATZERA.

KAIXO, KEPA,  
BAI, JADA  
BAGOAZ  
HARUNTZA...

BAINA...

IGO-  
TZEKO  
ALDA-  
TZERA!

JADA!

EZ, EZER EZ...  
IRATXEK EZ  
ZEKIEN ZER  
JANTZI ...



KEPAREN ETXEAN, JAI A EDERKI DOA.



JOANGO GARA  
BIRRA BATZU-  
REN BILA?

JO, A ZER  
ZORTEA... ZURE  
LAGUNAK  
ETORRI DIRA.

EEEH.  
KAIXO,  
NESKAK!



KAIXOOO...

A ZE  
BABUA.  
AKABUA  
DA!

ETA  
MINIGONA?

IKERRI EZ ZAIO  
GUSTATZEN...


EMAGALDU  
BAT EMATEN  
DUDALA DIO...



BENO, PIXKA  
BAT URDANGA  
BAZENIRUDIEN,  
NESKA...

BANA,  
ZERTAZ ARI  
ZARA?

BLA  
BLA  
BLA



ETA HORI NOR DA?!



BADA... ANDONI DA, KLASEKOA.



MUGIKORRERA GAUEKO HAMARRETAN DEITZEN DIZUNA EH? HORI?

LAN BAT EGITEN ARI GARA...



MUGIKORRA. EMAIDAZU.



EA ORAIN ZURI DEITZEKO ADURRIK DVEN BIZKOR HORREK...

BI ORDU GEROAGO...

JADA?  
HAIN GOIZ?

BAGOAZ?

BENGA... ZUREKIN  
BAKARKA EGON NAHI DUT...

OSO ONDO  
PASATZEN ARI NAIZ...

JAKINA, HAIN ONDO  
PASATZEN DUZU NIRI EZ  
DIDAZULA KASURIK  
ERE EGITEN!

BENGA,  
GOAZEN.

EZ.

EZ NAZAZU  
HASERRETU...

EZETZ!

GELDI!

MINA  
EGITEN  
DIDAZULA!



KOKOTERAINO  
NAGO!

BETI LERDOKERIAZ  
AZALTZEN  
ZATZAIZKIT!!

GUREAK  
EZ DU  
FUNTZIO-  
NATZEN ZURE  
ERRUAGATIK!



BI EGUN  
GEROAGO...

ATZO EZ ZIDAN  
TELEFONOA HARTU  
EGUN GUZTIAN...

GAUR BERDIN.  
HAMAR ALDIZ DEITU  
DIOT, ETA EZER EZ.  
ERABAT JOTA  
NAGO.

ZIUR NIREKIN  
HASERRE  
DAGOELA...



LASAI NESKA,  
MUTILAK BETI  
DABILTZA BEREN  
KONTUETAN,  
BADAKIZU...



ERGEL BAT  
DA. UTZI  
EGIN BEHAR  
DUZU.  
GAUR BERTAN.

**TIRIRI**  
**TIRIRI**

BERA  
DA.

**TIRIRI**  
**TIRIRI**

PLI  
KAIXO.



NESKA...  
ETZAZU  
ERANTZUN.

**TIRIRI**  
**TIRIRI**



BENGA...  
SEGURU  
BARKAMENA  
ESKATU NAHI  
DIZULA.



KAIXO,  
NOLA  
ZAUDE?

JAIAN ERGEL BAT  
BEZALA PORTATU  
NINTZEN.

HORI GEHEGIZKO  
BI GARAGARDO  
HARTZEAGATIK  
GERTATZEN ZAIT...

IRATXE...  
BARKATUKO  
NAUZU?

BADAKIZU NI  
EZ NAIZELA  
HORRELAKOA...



Behar duzuna zainduko  
zaituen senar on  
bat da...

Lan egin?  
Nik ezkondu nahi  
dut eta nire  
senarrak lan egitean  
deztala...

Gaur egun jada  
neskak ez dira bere  
lekuan egotearekin  
konformatzen...

XXI mendean  
emakumeek guztia  
abagune berberak  
erabiltzen dituzte...

Zuk egizu  
dioena eta  
guztia  
joango da...

Bikote-arazoak,  
genero-bortizkeria...





**TXITTXAT**

Ainaranara (16.20): nire etxean geratuko gara?  
 Iratxe (16.32): ezin dut gero kontsulta daukat  
 Iratxe (16.35): bihar kontauko, bale? :))



